

## Proiektu berezi eta estrategikoa.

2010/05/10

2025eko Espainiako sare elektrikorako irtenbide teknologikoen garapena

Proiektuak 40 milioi euroko aurrekontua du, eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak finantzatu du partzialki, eta FEDER fondoekin kofinantzatu da, Proiektu Berezi eta Estrategiko gisa.

FUTURED – Espainiako sare elektrikoaren Plataforma Teknologikoak sustatutako I+G+b ekimenetako lehenengoa da, eta mugari garrantzitsua da Espainiako sektore elektrikoan I+G+b arloan abiarazi den ekimen bateratu eta aglutinatzailean.

Proiektua lau urteko denbora tartearekin abiarazi da (2009-2012), eta lider eta eragileak dira Red Eléctrica de España, Endesa, Gas Natural - Unión Fenosa Distribución-en bidez-, HC Energía eta Iberdrola; koordinazio orokorra Tecnaliaren esku dago.

Halaber, proiektuan parte hartzen dute ekipamenduak fabrikatzen dituzten 25 enpresa eta ingeniariak, 6 Zentro Teknologiko eta Ikerketa institutuk, eta 9 Unibertsitate eta Ikerketa erakunde publikok; guztion artean 45 kideko partzuergo bat osatu dute.

Proiektuaren oinarrian FUTUREDen Ikuspegian eta Agendan adierazitakoa dago, eta helburu nagusiak dira 2020. urterako sare elektrikoa diseinatzea eta progresiboki garatzea, erabiltzaile guztien behar elektriko berriak ase eta bermatu ahal izateko, modu eraginkor fidagarrian eta iraunkorrean.

Testuinguru horretan, REDES 2025 Proiektu Berezi eta Estrategikoak helburu berezi bat dauka, eta hori da irtenbide teknologikoak diseinatzea, zehaztea eta garatzea, ikuspegi hori errealitate bihurtu ahal izateko. Horretarako, alde batetik, potentzi elektronikan, energia biltzearen eta superkonektibotasunean oinarritutako aplikazioak landuko dira, eta, bestetik, sarean baliabide energetiko barreiatuak integratzeko eta etorkizuneko sare elektrikoaren informazioa kudeatzeko tresnak.

